

BALIO PROPOSAMENA

Bakardade eta sozializatzeko dagoen espazio falta, baita besteekiko ikasketa ere.

IntegrAkzioa proiektuak bakardadeari eta sozializatzeko espazio faltari irtenbidea ematen dio, komunitatearen kohesioa eta aukera berdintasuna sustatuz. Truke-eredu berritzaile baten bidez, parte-hartzaileek elkarri irakatsiko diote: norbaitek sukaldaritza klaseak ematen baditu, trukean beste norbaitek ingeleseko klaseak eskaini diezazkioke.

Guztientzako irekitako espazio inklusiboa eskaintzen dugu, baliabide gutxiago dituzten pertsonen ere ikasteko eta harremanak sortzeko aukera emanez. Proiektuaren finantzaketa diru-laguntzen, babesletzen eta ordainpeko tailerren bidez lortuko da, jasangarritasuna bermatuz.

IntegrAkzioak, Irungo errealitate sozialari erantzunez, gizarte-harremanak, ezagutza eta aniztasuna indartzea du helburu. Dirurik gabe ikasi, irakatsi eta hazteko lekua!